HEZIKETA BEREZIAREN GIDA

EAEko hezkuntza publikoa

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Eguneratze data: 2026ko urria

Sarrera ……..…..... 3

1. Hezkuntza bereziko sailkapena: sektoreak eta izaerak ..…..……..……... 4-5

2. Hezkuntza Sailaren guneak ..…….…….... 6

3. Zer egin behar da lanean hasteko? ……..……... 7

4. Zerrenda moten arteko lehentasunak …….……..… 8

5. Birbaremazioa ….……..……..……..…….. 8

6. Lanpostu bat lortzeko prozesuak …….....…..... 9-11

7. Zer egin behar da lanpostu bat lortzean? ….....…..... 12

8. Langabezia kobratzea lanaldi murriztuetan …….....…..... 13

9. Bateragarritasunak ……..……..... 13

10. Ordezkoen udako kobrantza .....…..... 14

11. Lizentziak eta baimenak.....….....…..... 15-18

12. ELA sindikatuaren ezaugarriak ……. 19

SARRERA

Gida honetan EAEko hezkuntza publikoko Heziketa Bereziko kolektiboaren funtzionamendua azalduko dugu.

Gida honekin oraindik ere galduta sentitzen bazara, jarri gurekin harremanetan, gustura asko erantzungo ditugu zure zalantzak.

Bilbo eta Ibaizabal-Nerbioi Ziortza Uribe	zuribe@ela.eus	688 64 82 21
Eskumaldea eta Gernika-Durango Eider Iturriaga	eiturriaga@ela.eus	603 04 91 29
Ezkerraldea-Kadagua Rakel Pico	rpico@ela.eus	688 64 96 10
Donostialdea eta Oarso-Bidasoa Leire Ruiz de Galarreta	lgalarreta@ela.eus	688 89 77 13
Oria-Goierri Olatz Zulaika	ozulaika@ela.eus	747 42 98 57
Urola-Kosta eta Deba Ane Goenaga	anegoenaga@ela.eus	688 81 57 73
Araba Alaitz Arana	aarana@ela.eus	688 88 50 65

1. HEZKUNTZA BEREZIKO SAILKAPENA

Heziketa Bereziko kolektiboak hainbat sektore barne hartzen ditu, langilearen espezialitatearen arabera. Gainera, lan-kontratu motaren arabera, langileek izaera desberdina izan dezakete. Hori horrela, akatsak eta arazoak saihesteko, garrantzitsua da norberak argi izatea Heziketa Bereziaren barruan zein sektore zehatzekoa den eta baita zein lan-kontratu mota duen.

1.1. SEKTOREAK: zerrendak/espezialitateak

<table>
<tr><th>Sektorea</th><th colspan="2">Ezaugarriak</th></tr>
<tr><td>Hezkuntza Laguntzako Espezialistak (HLE)</td><td rowspan="2">Ikastetxeetara daude atxikiak: gela egonkorretan, Zereginen Ikaskuntzako Geletan (ZIG), Ospitaleko eta Etxeko hezkuntza arretarako eta Arreta Terapeutiko Hezigarrirako zentroetan (OETH/UTE) eta zentro berezietan (Gorbeialde HBI da bakarra).</td><td>Maila guztietako ikastetxeetan egin dezakete lana, DBH-2 maila arte.</td></tr>
<tr><td>Zeinu Hizkuntzako Interpreteak (ZHI)</td><td>Maila guztietako ikastetxeetan egin dezakete lana, Lanbide Heziketa barne.</td></tr>
<tr><td>Transkriptoreak</td><td colspan="2">IBT zentroetara daude atxikiak.</td></tr>
<tr><td>Fisoterapeutak</td><td rowspan="2" colspan="2">Berritzeguneetara daude atxikiak eta 7 kokapen ezberdin daude: A1 Gasteiz, B1 Durango, B2 Leioa, B3 Bilbo, B4 Barakaldo, G1 Donostia eta G2 Eibar.</td></tr>
<tr><td>Okupazio terapeutak (OT)</td></tr>
<tr><td>Gizarte laguntzako langileak</td><td colspan="2">Guztira 3 langile daude EAEko ikastetxe guztietarako.</td></tr>
</table>

Heziketa Bereziko hitzarmenaren III. eranskinean (Ordezkoen araudia) zehaztuta daude zerrenda/espezialitate bakoitzean izena emateko onartzen diren titulazioak.

1.2. IZAERAK: lan-kontratu mota

	Ezaugarriak
Finkoa	Langileak **lan kontratua finkoa** du, EPE baten fase guztiak gainditu eta plaza lortu duelako. Atxikita dagoen ikastetxez aldatu nahi badu Lekualdatze Lehiaketan parte hartu behar du.
Interinoa Bitartekoa	Langileak **bakantedun kontratua** du, hau da, gutxienez ikasturte oso bateko iraupena duen kontratua. Lanaldi osoko edo lanaldi erdiko lanpostuak dira. Langileak, hala nahi badu, lanpostuaren jabetzan jarrai dezake langile finko batek Lekualdatze Lehiaketan lanpostu hori hartu arte edo Hezkuntza Sailak lanpostua EPE batetara atera arte. Ikastetxeko beharrak gutxitzen badira esleipenetako ebazpeneko irizpideak jarraitu beharko ditu.
Ordezkoa	Ikasturtean zehar hainbat ikastetxetan egiten dute lan. Gaixotasun bajak, baimenak/lizentziak eta mota horretako lanpostuetan egiten dute lan, lanpostuaren jabea/titularra ordezkatzen.
Ekoizpen kontratua duen langilea	Ikasturte berean gehienez ere 10 hilabete irauten duten kontratuak dira. Eta guztira gehienez 18 hilabete egon ahal zara ekoizpen kontratu batean. Beraz, ikasturte batean 10 hilabete egoten lanean egonda, hurrengo ikasturtean 8 hilabetez egon daiteke kontratu horrekin. Eta berriz 10 hilabeteko bat sortuko balitz ezingo litzake hartu kontratu mota hori. Lanpostu hauek urtean zehar beharrak sortzen direnean edota IKHA esleipenetan banatzen dira.

1.3. UKO EGITEAK: bitarteko kontratuei edo ordezkapenei

Langile batek lanaldi partzialeko edo osoko lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua badu, edo ordezkapen kontratua badu, borondatez uko egin ahal izango dio kontratuari, IKHA esleipenetan parte hartzeko. Uko egiteak idatziz aurkeztu beharko dira, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenak ezarritako epean. Uko egite horiek dagokion ikasturteko abuztuaren 31n izango dituzte ondorioak. Uko egiten bada, ezingo da SEPEN langabezia prestazioa eskatu.

2. HEZKUNTZA SAILAREN GUNEAK

Hezkuntza Sailak plataforma edo gune ezberdinak ditu informazioa argitaratzeko eta langileekin kudeaketa/tramiteak egiteko. Garrantzitsua da guneak ezagutu eta bakoitzaren erabilerak identifikatzea.

GUNEA	ERABILERA
Hezkuntza Sailaren webgunea	www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ · Gune irekia da, ez da erabiltzailerik/pasahitzik behar. · Kontsulta gunea da, informazioa lortzekoa: - Legedia, araudiak, ebazpenak, deialdiak, etab. - Hezkuntzan aplikagarri diren protokoloak. - Prozesu administratiboei buruzko deialdi, berriak eta oharrak.
Hezigunea	www.hezigunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, bakoitzak bere erabiltzaile eta pasahitza lortuko ditu sartzen den lehen aldian. · **Norberaren datuak kontsultatzeko:** zerbitzu-orria, nominak, DAE-a, ikastetxea, etab. · **Prozesu administratiboak kudeatzeko:** izena eman, emaitzak ikusi, erreklamazioak egin, etab. · **Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzeko: Komunikabide (kontsultak egiteko) eta Tramitagune (eskaerak egiteko).**
Ordezkagunea	www.ordezkagunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, Heziguneko erabiltzaile eta pasahitz berdinak erabiltzen dira. Ordezkoek soilik erabiltzen dute. · Ordezkapenetarako datuak ikusteko (zerrendako hurrenkera, adibidez) eta lan egoera aldatzeko. · **Eguneroko ordezkapenen esleipenean parte hartzeko: lanpostuak eskatzeko eta esleipena ikusteko.**
EIZU	Sailaren webgunea → Langileak → EIZU · Hainbat eskaera egiteko (besteak beste, lizentziak, baimenak eta murrizketak eskatu, IRPFa aldatu, etab).
ELAren webgunea	ELAren webgunean Hezkuntzaren atal propioa dugu. Bertan albisteak, langileentzako oharrak, material teknikoa (gidak etab.) zein hitzarmen eta araudi nagusiak dituzue. https://www.ela.eus/eu/gizalan/irakaskuntza

Gogoratu: EIZU eta Tramitagunean sartu ahal izateko beharrezkoa da BakQa izatea.

3. ZER EGIN BEHAR DA LANEAN HASTEKO?

Heziketa Bereziko kolektiboan lanean hasteko ondoren azaldutako bi sarbide hauek daude:

3.1. ZERRENDETAN IZENA EMATEA

Hezigunetik egiten da, eta, orokorrean, ikasturte osoan zehar edozein momentutan egin daiteke. Hala ere, gomendagarria da abuztuaren 31a baino lehen izena ematea, izen emate datak eragina duelako gida honetan aurrerago azalduko dugun Birbaremazio prozesuan.

Gaur egun zerrenda guztiak etengabe irekita daude. Hori horrela mantentzen den bitartean, langileak dagoeneko zerrenda batean izena emanda baldin badu, beste espezialitate batzuetako zerrenda(ta)n izena eman dezake, beste zerrenda horietan izena emateko beharrezko titulazioa/k baldin baditu, noski. Heziketa Bereziko hitzarmenaren III. eranskinean (Ordezkoen araudia) zehaztuta daude espezialitate bakoitzean izena emateko beharrezkoak diren titulazioak (Sailaren webgunea → Langileak → Ordezkapenetarako izangaiak → Irakasleak ez diren langileak). Zerrendetan izena emateko honako pausuak jarraitu behar dira:

Hezigunea (lehen aldian erregistratu) → Eremu pertsonala → Izapideak langileen sailarekin → Zerrenda irekiera → Irekita mantentzen diren zerrendak: Eskabidea → Hizkuntza Eskakizuna hautatu * → Online eskabidea → Onartu

**Hizkuntza Eskakizuna lanpostuen euskara maila da (C1 maila behar da zerrendatan sartzeko).*

Zerrendetan izena emateko prozesuan hiru “pantaila” daude:

1. **Identifikazio datuak:** datu pertsonalak bete behar dira.
2. **Lurralde/lanaldi aukerak zehaztu eta zerrendak/espezialitateak hautatu:** alde batetik, EAEko zein lurralde eta lanaldi motatako lanpostuak eskatu nahi diren zehaztu behar da (Gipuzkoa, Araba eta/edo Bizkaia, eta lanaldi osoko lanpostuak, murriztuak ala biak). Garrantzitsua da oso ongi hausnartzea, ikasturtean behin bakarrik aldatu ahal izango baitira aukera horiek (Birbaremazioan), eta gainera, zehaztutako aldaketak hurrengo ikasturtean aplikatzen dira, ez momentuan bertan. Bestalde, izena eman nahi den/diren espezialitatea(k) aukeratu behar dira.
3. **Dokumentazioa igo:** zerrendetan izena emateko beharrezkoak diren titulazioak PDF formatuan igo behar dira. Betekizun horiek hitzarmenaren III. eranskinean (Ordezkoen araudia) zehaztuta daude.

Behin zerrendetan izena ematean, Hezkuntza Sailak balioztatu behar du langileak igotako dokumentazioa. Ez dago epe zehatzik Hezkuntzak hau egiteko (normalean mezu bat iristen da eskaera onartuta dagoenean). Eskaera onarpena iritsi eta hurrengo egunetik aurrera Ordezkagunean parte har daiteke lanpostu bat lortzen saiatzeko (gida honen 6. atalean xehetasun guztiak).

3.2. EPE BATERA AURKEZTEA ETA GAINDITZEA

Lanean hasteko modu ez-ohikoa den arren, posiblea da pertsona bat zuzenean EPE batera aurkeztea, hura gainditzea eta plaza lortzea. Kasu honetan, zuzenean lan kontratu finko batekin hasiko litzake lanean.

4. ZERRENDA MOTEN ARTEKO LEHENTASUNAK

Bi sarbide mota desberdin daudenez, zerrenda mota desberdinak sortzen dira. Laburbilduta zerrenden arteko hurrenkera honela ezartzen da (ordezkoen araudian zehaztasun guztiak):

1. **Zerrenda orokorra:** Birbaremazio bat pasa duten langileek osatzen dute.

2. **Zerrenden izen-emateen ondoriozko zerrenda:** zerrendetan izena eman duten baina Birbaremazio bat pasatu ez duten langileek osatzen dute. Birbaremazio prozesu bat egiten dutenean zerrenda orokorrera pasatzen dira.

5. BIRBAREMAZIOA

Norberaren fitxa zein puntuazioa eguneratzeko prozesua da.
Ordezkoen zerrenda orokorraren hurrenkera zehazten du hurrengo ikasturterako.

Laburbilduta, hau da Birbaremazioan egiten dena:

1. **Norberaren fitxa eguneratu:** hainbat datu molda daitezke, adibidez, datu pertsonalak, lurraldeak, lanaldi motak, zerrendak, Hizkuntza Eskakizuna, eta abar.

2. **Puntuazioa eguneratu:** Sailak ofizioz (automatikoki) gehitzen dituen puntuak zein norberak gehitu nahi dituen merituak eguneratzen dira. Aplikatzen den baremoa hitzarmenaren III. eranskinean dago *(ikus beheko taula)*.

Baremazio irizpideak	
Lan esperientzia Hezkuntza Publikoan, **Heziketa Bereziko edozein zerrenda/espezialitatetan**	Hilabete bat = Puntu 1
Lan esperientzia Itunpeko Hezkuntzan edo Hezkuntza Pribatuan	Hilabete bat = 0,5 puntu
Babestutako egoera: aurreko ikasturtea hartuko da kontuan, irailak 1etik abuztuak 31 arte. (Ikus III. eranskina)	

** Honetaz gain, kontuan izan behar da ikasturtean 165 lanegun edo gehiagotan lan egin bada, puntu gehigarri bat lortzen dela Birbaremaziorako.*

3. **Zerrenda orokorrera pasa:** birbarematu gabekoen zerrendan dauden langileak zerrenda orokorrera pasatzen dira.



Azkenik, jakin, Birbaremazioa ikasturtero egiten dela. Eskaera normalean azaroan egiten da, eta ikasturte osoan zehar hainbat kudeaketa egin behar dira (erreklamazioak…). Azkenik, behin-betiko zerrendak, emaitzak, martxoa/apirila aldera argitaratzen dira. Hala ere, gogoratu Birbaremazioan egindako aldaketak hurrengo ikasturtean aplikatzen direla, eta ez argitaratu eta berehala.

Gogoratu:

1. Zerrendetan izena emandakoek Birbaremazioan parte hartu ahal izango dute baldin eta izena ematea egin bazuten aurreko ikasturteko abuztuaren 31 baino lehen.

2. Ikasturtean zehar eskaintzen diren SMS bidezko bakanteren bat eskuratzeko lanaldi osoan ere izena emanda egon behar da.

6. LANPOSTU BAT LORTZEKO PROZESUAK

Lanpostu bat lortzeko 3 aukera daude: IKHA esleipenetan, Ordezkagunean edota ikasturtean zehar SMS bidez jakinarazten diren bakante lanpostuetan parte hartuz.

Adi: oso garrantzitsua da Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileak ordezkatzeko araudia (III. eranskina) irakurtzea.

6.1. IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA esleipenak)

Prozesu hau **urtero ekainean zehar egiten da, eta bertan eskaintzen diren lanpostuak lanaldi osoko eta erdiko lanpostuak dira**. Eskainitako lanpostuak honakoak betetzeko izango dira: lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratuak (bakanteak).

IKHA esleipen prozesu honetan, normalean puntu dexente dituzten langileek lortzen dute lanpostua. Langileek borondatez hartu ahal dute parte, beti ere zerrenda orokorrean baldin badaude. Gogoan izan zerrenda batzuetatik besteetara alde nabarmenak daudela eta ikasturte osoko lanpostu bat lortzeko behar diren puntuak oso desberdinak direla zerrenda bakoitzean.

Prozesu honen araudia eta egutegia Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzen dira maiatza/ekaina aldera, eta gero, lanpostuak Hezigunetik eskatzen dira. Lanpostu bat inork hartzen ez badu, ez da ofizioz esleitzen (hutsik gelditzen da) eta iraila hasieran Ordezkagune bidez esleitzen da. Gida bat argitaratzen dute. Hitzarmenaren III. eranskinean (Ordezkoen araudia) jasota dago aurrerantzean lan-kontratua sinadura digitalaren bidez jaso eta sinatuko dela, Hezigunetik, oraindik martxan jarri ez den arren.

Gogoratu: IKHAn ez da OFIZIOZ ezer esleitzen; beraz, langileari soilik berak aukeratutako plazak esleitu ahal izango zaizkio. Birbaremazioan jarritako aukerak Ordezkaguneko esleipenetarako erabiltzen dira.

IKHAn parte hartu eta lanpostu bat lortzen duten langileak irailaren 1ean hasi behar dira lanean esleitutako ikastetxean. Hala egiten ez badute, lanpostuari uko egin diotela ulertzen da eta horrek penalizazioa dakar: lanpostua galtzea eta IKHAn zein Ordezkagunean parte hartu ezin izatea egoera hori hasi eta urtebetea arte.

ELA Hezkuntzatik prozesu honi buruzko gida zehatz bat argitaratuko dugu. Gainera hitzaldiak antolatuko ditugu gure afiliatuei prozesuaren xehetasun guztiak azaltzeko eta zalantzak argitzeko.

6.2. ORDEZKAGUNEA



Ordezkagunearen webgunean aplikatibo honi buruzko xehetasun guztiak jasotzen dituen gida dago, Hezkuntza Sailak argitaratutakoa. ELAtik oso gomendagarria deritzogu hori irakurtzeko tartea hartzeari, eskuartean duzuen gida honetan azaldutakoaz gain, sistemaren xehetasun guztiak azaltzen baititu.

Laburbilduta, Ordezkagunea **ikasturtean zehar sortzen diren ordezkapenak esleitzeko** egunero erabiltzen den plataforma da. Beraz, gehienetan ikasturte osoko iraupena EZ duten lanpostuak esleitzen dira Ordezkagune bidez: gaixotasun bajak, baimenak/lizentziak etab.

Salbuespen batzuk daude aurreko parrafoan esandakoarekiko: abuztua bukaeran eta irailaren lehen egunetan, hau da, IKHA esleipenak amaitu eta gero, ikasturte osoko iraupena duten lanpostu batzuk esleitzen dira Ordezkagune bidez. Lanpostu hauek, besteak beste, honakoak izaten dira: IKHAn esleitu gabe geratu direnak, udan zehar sortutako jubilazioak edota urtea hasi eta ondoren sortzen diren lanpostuak, urte sabatikoa ordezkatzeko ikasturte osoko ordezkapen-kontratuak eta liberazio sindikaleko ordezkapenak (horien iraupena ikasturte osokoa izango dela aurreikusten da, aurretik lanpostuaren titularraren liberazioa amaitzen ez bada). Behin salbuespenezko Ordezkagune hau pasata eta ikasturtea hasita dagoenean, ohiko Ordezkagune arruntera itzultzen da.

Gogoratu: oso garrantzitsua da jakitea Ordezkagunean parte hartu ahal izateko, Ordezkagunean langileari azaltzen zaion lan egoera "Lan egiteko moduan" izan behar dela, bestela ezin dira lanpostuak eskatu. Lan egoera mota guztiak eta batetik bestera aldatzeko prozesua Ordezkagunearen gidan azalduta daude.

Langileak egunero sistemara sartu behar du eta egun horretan eskaintzen diren lanpostuak eskatu (Birbaremazioan jarrita dituen lurralde/lanaldi/zerrendetakoak soilik). Prozesua borondatezkoa da, baina IKHArekin gertatzen ez den bezala, Ordezkagunean lanpostuak ofizioz (hau da, eskatu gabe ere) esleitu daitezke "Lan egiteko moduan" daudenen artean. Zehazki, egun horretan zerrendan dagoen azkeneko pertsonari (puntu gutxien dituenari) esleitzen zaio hutsik geratu den lanpostua. Beraz, parte hartzea borondatezkoa den arren, adi ibili behar dute zerrendaren amaiera aldera daudenek. **Berrikuntza gisa, ikasturtean behin nahitaezko esleipen bati uko egiteko aukera dago, penalizaziorik gabe.** Bigarren alditik aurrera ondorio bezala urte batez Ordezkagunean parte hartzeko aukera galtzen da.

Ordezkagunearen **ordutegia** hau da:



· **9:30etatik 13:00etara**: lan egoera aldatzeko aukera.
· **13:30etatik 15:30etara:** egun horretan eskaintzen diren lanpostuak eskatu.
· **15:45etatik aurrera:** esleitutako lanpostuak ikusi. Ordu hau alda egin daiteke eskainitako plaza kopuruen arabera.

Gehienetan email/SMS bitartez jakinarazten du Hezkuntza Sailak esleipenaren emaitza, baina ez da derrigorrezkoa, norberaren ardura da plataforman sartzea eta emaitza kontsultatzea.

6.3 SMS BIDEZ JAKINARAZTEN DIREN BAKANTE LANPOSTUAK

Lanpostu hauek bakante izaerako lanpostu hutsak dira. Ordezkagune bidez esleitzen dira, egun horretako Ordezkaguneko gainontzeko lanpostuekin batera. Hala ere, berezitasun bat dute: dagoeneko beste lanpostu batean dauden langile batzuek ere, hau da, jada lanean dauden langile batzuek ere eska ditzakete. Soilik SMS bidez jakinarazpena jaso duten langileek eska ditzakete, eta ez lanean dagoen edozein langilek.

Lanpostu hauek kontratua hobetzeko aukera gisa ulertzen ditu Hezkuntza Sailak. Horregatik, SMS bidezko aurreabisua bidaltzen die soilik lanpostu hobekuntza bat izateko aukera duten langileei, hala nahi badute, eskaera egin dezaten.

7. ZER EGIN BEHAR DA LANPOSTU BAT LORTZEAN?

IKHA esleipen bidez zein Ordezkagune bidez lanpostu bat lortzen denean hau egin behar da:

1. Esleitutako ikastetxera/kokapenera joan: esleitutako lanpostuak ezarritako data eta orduan.

2. Lanpostuaren jabetza egin: lanpostu berri bat hartzen den aldiro, lehen egun eta orduan ikastetxeko zuzendaritzarengana jo behar da eta, kasu gehienetan, zuzendaritzak emandako jabetza dokumentua sinatzen da.

3. Lan-kontratua sinatu: lanpostu/ordezkapen bakoitzak lan-kontratu bat sortzen du. Hitzarmenaren III. eranskinean (Ordezkoen araudia) jasota dago aurrerantzean lan-kontratua sinadura digitalaren bidez jaso eta sinatuko dela, Hezigunetik. Hala ere, gaur-gaurkoz prozedura hau martxan jarri ez denez, kontratuak sinatzeko Tramitagunetik hitzordua eskatu behar da dagokion Ordezkaritzara joateko. Aukera dago kontratu bakoitzarekin hitzordu bat hartzeko, edo, langileak hala nahi badu, ikasturtearen amaieran hitzordu bakarra hartu eta orduan urteko kontratu guztiak batera sinatzeko.

4. Dokumentu hauek bidali: lehen aldiz lanpostu bat lortzen denean, eta soilik lehen aldi horretan, Tramitagunetik bidali behar dira NANaren kopia, titulu akademikoaren kopia (gradua, lizentziatura edo dagokiona) eta norberaren datuen fitxa (Sailaren webgunean dago PDF eredua deskargatzeko). Bestalde, Hezigunetik, zehazki hasiera orrian, Hezkuntza Sailari baimena eman behar zaio Sexu Delitugileen Erregistro Nazionalean kontsultatzeko sexu-izaerako deliturik egin ez dugula. Oso garrantzitsua da guzti hau lehenbailehen egitea Gizarte Segurantzan alta eman ahal izateko. Azkenik, lurralde bakoitzeko Ordezkaritzek izendapena gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein agiri eskatu ahal izango dituzte.

Gogoratu:

1. Lanpostu batean lanean hastean Hezkuntza Sailak automatikoki aldatzen dio Ordezkaguneko lan egoera langileari “Lanean” lan egoerara. Aldiz, ordezkapen bat amaitzen denean, langilea bera da bere Ordezkaguneko lan egoera berriro “Lan egiteko moduan” bezala izatera aldatu behar duena. Sailak ez du automatikoki egiten.



2. Langilea “Lan egiteko moduan” egoeran baldin badago, eta ez badu nahi inolako lanposturen esleipedun izan, bi aukera ditu: alde batetik, “Ez lanerako prest” egoerara aldatu ahal izango du inongo justifikaziorik aurkeztu behar izan gabe; edo bestetik, “Babesutako egoerara” aldatu ahal izango du horretarako eskaera orria betez eta dagokion dokumentazioa igoz (egoera zehatzak hitzarmenaren III. eranskinean, ordezkoen araudian, zehaztuta daude).

3. “Lan egiteko moduan” dauden langileek ikasturtean **BEHIN nahitaezko/ofiziozko** esleipen bati uko egiteko aukera dute. **BIGARREN** alditik aurrera ondorio bezala urte batez Ordezkagunean parte hartzeko aukera galtzen dute.

8. LANGABEZIA KOBRATZEA LANALDI MURRIZTUETAN

Langile askok, lanaldi murriztutako lanpostuak lortzen dituztenean, langabeziarekin konpentsatzen dute egoera, lanaldi osora arteko dirusariak jasotzeko. Duela gutxi arte, hori egin ahal izateko baldintza batzuk bete behar izaten ziren, honakoak:

1. Birbaremazioan lanaldi mota guztiak eta lurralde guztiak aukeratuta izatea, hau da, lanaldi osoak zein murriztuak eta hiru lurraldeak.

2. Lanpostua lortu zen esleipenean (IKHA edo Ordezkagunean) lanaldi osoko lanpostua lortzeko aukerarik ez izana. Hau da, adibidez, lanaldi osoko zein murriztutako lanpostuak eskaini badira, norberaren eskaeran hurrenkeran lanaldi osokoak aurretik jarri izana.

Baina adi! Duela gutxi arte baldintza hauek bete behar ziren arren, azkenaldian jakin izan dugu SEPEren barne irizpideak aldatu direla eta jada ez dituztela datu hauek Hezkuntza Sailarekin kontrastatzen. Beraz, ditugun azken informazioetan oinarrituz, jada ez da derrigorrezkoa baldintza hauek betetzea langabeziarekin jardunaldia konpentsatu ahal izateko. Dena den, ELAtik gomendatzen dizuegu egoera honetan bazaudete, SEPErekin zuzenean zuen egoera zehatza argitzea.



Gogoratu:

1. Hamabost laneguneko epea dago kontratuan aldaketa eman denetik SEPEn prestazioa/konpentsazioa eskatu eta kudeatu ahal izateko.

2. Langabezia eskatzeko eta onartzeko baldintza eta xehetasun guztiak SEPEn kontsultatu behar dira.

9. BATERAGARRITASUNAK

Bateragarritasunaz hitz egiten dugunean, ordaindutako bigarren lan batean aritzeaz ari gara. Hau da, Hezkuntza Publikoan lanean ibiltzeaz gain, bestelako lanpostu batean lanean aldi berean egoteari buruz.

Hezkuntza publikoan lanean egonik, arau orokor gisa, bigarren lan bat izateko baldintza batzuk bete behar dira, eta gainera, alor pribatuan aritzeko baldin bada, soldataren parte bati uko egin behar zaio.

Hezkuntza Sailaren webgunean daude araudia eta azken urtetan onartutakoak:

Langileak → Lan-erregimena → Bateragarritasunak

10. ORDEZKOEN UDAKO KOBRANTZA

Ordezkoak diren langileek ikasturtean lan egindako egun kopuruaren arabera udarari dagokion ordainketa bat sortzen dute, baldintza batzuk betez gero. Udako kobrantza honi Hezkuntza Sailak "*Prestutasunagatiko eta mugikortasunagatiko konpentsazioa*" deitzen dio. Baldintzak betez gero, dirusariak iraileko hilabeteko nominan jasotzen dira (Hezkuntza Sailak zenbatzen duenean aurreko ikasturtean zenbat lan egunetan egin den lan).

Honakoak dira **udako kobrantza jasotzeko bete beharreko baldintzak** (Hitzarmenaren III. eranskinean, ordezkoen araudian, xehetasunez jasota daude):

1. Ordezkapenengatiko bitarteko lan-modalitatean lan egin izana, hau da, ordezkoa izatea.
2. Ordezkagunearen esleipenetan ohikotasunez parte hartu izana. Betekizun hau betetzen ez dela ulertuko da baldin eta 50 egun balioduneko epean egon bada Ordezkagunean parte hartu gabe Ordezkagunea martxan egon den bitartean justifikatutako arrazoirik gabe. Justifikatutako egoerak izango dira besteen artean gurasotasunari lotutako egoerak, ezintasunak, familiarren zaintza…etab. Honetaz gain, gida honen 7. atalean esan bezala, "Babestutako egoera"-n jar daiteke langilea.

Baldintza horiek betetzen dituzten langileek konpentsazio ekonomiko bat jasoko dute, **baremo** honen arabera:

Lan egindako egunak	Udako kobrantzarako egunak
165 - 192 egun bitarte	6 egun
193 - 220 egun bitarte	7 egun
221 - 248 egun bitarte	8 egun
249 - 275 egun bitarte	9 egun
276 - 300 egun bitarte	10 egun



Honetaz gain, kontuan izan behar da ikasturtean 165 lanegun edo gehiagotan lan egin bada, puntu gehigarri bat lortzen dela Birbaremaziorako.

11. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

11.1. LIZENTZIAK

Atal honetako informazioa Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmenean jasota dago. Langile mota guztiek eska ditzakete, eskubidea baitira. Ez da onarpenik jaso behar horietaz disfrutatzeko, hau da, langileak eskaera egin behar du, baina epearen barruan eskatzen badu eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz, ezin zaio lizentzia ukatu. **Lizentzia guztietan ordainsariak osorik jasotzen dira, baina lanaldiaren proportzioan, eta kotizatu egiten da ere.**

28. art: istripu edo gaixotasuna	Autom.	Medikuak baja ematen duenetik alta eman arte edo kontratua bukatu arte irauten du. Baja abuztuko hilabetean izan bada, disfrutatu gabeko oporrak daude. 18. baja hilabetetik aurrera baliaezintasuna eskatu behar da soldata osorik jasotzeko.
29. art: gurasotasuna: erditzea, adopzioa edo harrera	Tramitag. EIZU	19/21 aste guraso bakoitzak: 6 nahitaezkoak + 11 borondatezkoak + 2 GKEk hobetutakoak + 2 (soilik nahitaezkoak ez diren aste guztiak jarraian hartuz gero, etenik gabe). Gurasobakarreko familien kasuan 13 aste gehigarri. Erditze anizkoitza edo ezgaitua bada, 2 aste gehiago seme-alaba bakoitzeko. Erditze goiztiarrak edo ospitalean egon behar bada (erditu ta hilabete bitartean), behar adina, 13 aste gehienez. ***ELAren familia gidan informazio osatua.***
29. c) art: edoskitzea	Tramitag. EIZU	Egunero ordu bat haurrak urtebete bete arte. Edoskitze metatua: 28 lanegun lanaldi osoan badago. Edoskitze ez-metatua: egunero ordu bat edo ordu erdiko bi zati.
31 art: norberaren ezkontza edo izatezko bikotea	EIZU	20 egun natural, ezkontza eguna barne. Ezkondu aurretik edo ondoren hartu daiteke, baina egun hori aldi horren barruan sartuko da. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
32. art: senide baten ezkontza edo izatezko bikotea	EIZU	2. ahaidetasun-maila arteko senideen kasuan. Egun bat, ezkontza egunean bertan (2 egun natural gehiago 150km baino urrunago bada). Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
34. art: nahitaezko betebehar publikoak edo norberaren betebeharrak	Zuzend.	Behar adina denbora baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez baldin badago. Justifikatu beharra dago. Adibideak: epaitegietako zitazioak, hitzordua NANa, pasaportea edo gidabaimena eskuratzeko edo berritzeko, etab.
35. art: ohiko etxebizitza aldatzea	EIZU	2 lanegun, erroldatu eta 15 eguneko epean hartzeko. Erroldatze-egiaztagiria eskabidea egin ondoren aurkez daiteke, baina inoiz ez lizentzia amaitu baino beranduago. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.

<table>
<tr><td>33. art: senideen gaixotasun larri edo heriotza</td><td>EIZU</td><td>Lizentziaren gehieneko iraupena taulan azaltzen dena da, beti ere, gertakariak irauten duen bitartean (senidearen ospitaleratzea, adibidez). Alta ematen badiote, lizentzia moztu egiten da. Egunak ez dira nahitaez jarraian hartu behar. Langilearen bizitokia hartzen da herritzat.<table>
<tr><td>Gaixotasun larria
Istripua - Ebakuntza
Ospitaleratzea
Etxeko ospitaleratzea</td><td>Bizikidea
1. mailako senideak
2. mailako senideak</td><td rowspan="2">5 lanegun + 2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Heriotza</td><td>1. mailako senideak</td></tr>
<tr><td>2. mailako senideak
Maila urrunagokoak, elkarrekin bizi badira</td><td>3 lanegun herri berean bada
4 lanegun beste herri batean bada + 2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>36. art. ordezkaritza sindikala</td><td>Tramitag.</td><td>Indarrean dagoen legediaren arabera.</td></tr>
<tr><td>37. art: indarkeria matxistaren biktima</td><td>Tramitag.</td><td>Gizarte zerbitzuek zehaztutako denbora. Lanaldia murrizteko aukera edo ordutegia moldatzeko aukera.</td></tr>
<tr><td>41. art: azterketetara joatea</td><td>EIZU</td><td>Ikastetxe ofizial edo homologatuetako azterketa eguna (2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada).</td></tr>
<tr><td>42. art: EAEko proba ofizialetara joatea</td><td>EIZU</td><td>Administrazio Orokorrean sartzeko edo Hezkuntza Sailak deitutako hautaketa-prozesuetara joateko. Behar adina denbora joan etorria eta probak egiteko.</td></tr>
</table>

Kotizatu / Soldata	B → Bai E → Ez % → Lanaldiaren proportzioan

11.2. BAIMENAK

Atal honetako informazioa 252/2025 Dekretu Arautzailean jasota dago. Baimenak baliatu ahal izateko eskaera epearen barruan eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz egin behar dira, eta gainera, onarpena jaso behar da.

	Kotiz. Sold.		
51. art: 8 asteko guraso-baimena	B / E	EIZU	8 urte arteko adin txikikoak zaintzeko (seme-alabak edo etxean hartutako adin txikikoak). Zortzi asteko baimena, adingabeak zortzi urte bete arte. Jarraian edo aste osotako zatitan har daiteke. Eskaera 15 egun baliodun lehenago egin behar da.
39. art: gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzea	B / B	EIZU	2. maila arteko senideak edo urrunagokoak elkarrekin bizi badira. 50 ordu gehienez ikasturte bakoitzeko. Salbuespen gisa, orduak metatu daitezke. Oro har, egunean gehienez 2 ordukoa, lanaldiaren hasieran edo bukaeran. Baimena berriztagarria baldin bada, eskaera ez da urtero eskatu behar.
40,. art: ikasketak eta /edo praktikak egiteko baimena	B / B	Tramitag.	Finko eta bitarteko langileentzako. Baimen hau ematea hautazkoa da, kopuru mugatua baitago. Ikasketa ofizialak edo ikerketa-proiektuak egiteko. Ikasturte bateko iraupena du.
44. art: kontsulta, tratamendu edo azterketa medikoetara joatea	B / B	Zuzend.	Norberaren kontsultetarako eta adin txikiko seme-alabak (12 urte artemedikuarengana edo larrialdietara laguntzeko, gehienez 4 ordu. Salbuespen gisa luza daiteke. Erditzea/adopzioa prestatzeko teknikak ikastera eta jaio aurreko azterketak egitera joateko, gehienez astean 4 ordu. Bi kasuetan lanorduetatik kanpo ezin bada egin.
53. art: odola eta organoak ematea	B / B	Zuzend.	Beharrezkoa den denborarako soilik eta beti ere lanorduetatik kanpo joatea ezinezkoa dela justifikatuta.

43. art: zientzia, teknika, lanbide, elkargo, elkarte edo sindikatuetara joatea	B / E	Tramitag. Zuzend.	Lanpostuaren eduki funtzionalarekin lotuta egon behar du. Lehen 5 egunak ordaindu egingo dira, ondorengo egunak ez.
46. art: hautetsiei dagozkien eginkizunak betetzea	B / B-%	EIZU	Behar adina denbora, beti ere orduak guztira ez badira urteko lanaldiaren %10 baino gehiago. Bestela, lanaldia murriztu daiteke: bostena edo herena (KPB), edo erdia (K). Bostena murriztuta, ordainsariak osorik; erdia eta herena murriztuta, ordainsariak proportzioan.
54. art: goi-mailako kirolarientzako	B / B	Tramitag.	Nazioarteko lehiaketetara eta prestaketa kontzentrazioetara joateko, lehiaketa egunen iraupen berarekin. Eskaera gutxienez 10 lanegun lehenago egin behar da.
73. art: urte sabatikoa: partzialki ordaindutako baimena	B / %	Hezig.	Eskaerak ikasturte bakoitzaren urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte, biak barne. 5 ikasturtetako zikloak: lehenengo lau ikasturteak lanean eta bostgarrenean sabatikoa. Bost urte horietako bakoitzean ordainsarien %84 jasotzen da. Bitarteko langileek aurreko 5 ikasturteetan ikasturte osoko lanpostua izan behar izan dute.
47. art: ordaindu gabeko baimena	B / E	EIZU	1. Ikasketa ofizialak: gehienez 4 hilabete, urtean behin. 2. Garapen-bidean dauden herrialdeetako misioak: gutxienez 3 hilabete eta gehienez 2 urte, bost urtetik behin. 3. Askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzen ari direnei bisitak (2. ahaidetasun maila artekoak eta lanorduz kanpo ezin denenan): behar den denbora. 4. Administrazioan sartzeko hautaprobak: behar den denbora. 5. Arrazoi pertsonalak: ikasturte osoa edo erdia (iraila-urtarrila edo otsaila-ekaina). 6. Norberaren gauzetarako: gehienez 4 hilabete bi urtean behin (baimena hartzen den lehen egunean hasten dira zenbatzen bi urteak). Urtebetez lanean aritu behar izan da eskaera egin ahal izateko.
52. art: familia-arrazoi larriak	B / B	Zuzend.	Langileak eskubidea izango du lanetik alde egiteko ezinbesteko kasuetan, senideekin edo bizikideekin lotutako premiazko familia-arrazoiengatik beharrezkoa denean, gaixotasuna edo istripua dela-eta berehala joan behar denean.

12. ELA SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK

ZEIN DA ELA SINDIKATUAREN ZEREGIN NAGUSIA?

Langile klasea antolatzea, gure kasuan Heziketa Bereziko langileak, sektore honetako langileen lan eta bizi baldintza duinak borrokatu eta defendatzeko.

Horretarako, negoziazio kolektiboaz baliatzen gara. Eta zer da hori?

- Heziketa Bereziko langileen lan-baldintzak hitzarmen eta akordio desberdinetan arautzen dira.
- Hitzarmen eta akordio horiek mahai negoziatzaileetan adosten dira.
- Hori dela eta, sindikatu bezala tresna bakarra dugu negoziazio kolektiboa baldintzatu eta bertan eragiteko: **LANGILEAK**. Langileak antolatzea, langileak mobilizatzea eta indar korrelazioa gure alde jartzea Hezkuntza Saila mugitzera behartzeko.

ZERK DEFINITZEN GAITU SINDIKATU BEZALA?

- ✓ **ELA Hego Euskal Herriko sindikaturik indartsuena da**: 104.000 afiliatu baino gehiago ditugu eta ordezkaritzaren %36a gurea da Hego Euskal Herrian (%40tik gorakoa EAEn). Irakaskuntza Publikoaren kasuan, gaur gaurkoz, hirugarren sindikatua gara. 4 urtetik behin Hauteskunde Sindikalak ditugu eta gure ordezkaritza maila handitzeko lanean ari gara, irakaskuntza publikoan ere benetako borroka eraginkorrak martxan jarri ahal izateko.

- ✓ **Afiliazioak sostengatzen duen proiektua da ELA**: sindikatuaren finantzazioaren %90a afiliatuen kuotetatik dator. Horrek autonomia ematen digu langileen interesak defendatzeko, ez baikaude gobernuen, alderdi politikoen edo dirulaguntzen menpe. Afiliazioa da ELAren indargunea.

- ✓ **ELA sindikatu abertzalea da**: sindikatuak euskal errepublika baten alde egiten du, Euskal Herriaren burujabetza lortzeko. ELAk argi du Euskal Herriaren etorkizuna ezin dela Espainiar eta Frantziar estatuen menpe eraiki, horregatik, esparru guztietan burujabetza eskuratzeko borrokak zentraltasuna hartu behar duela defendatzen du. Langile klasearen eta gure herriaren askatasuna helburu, burujabetzarako borrokan eragile aktibo izaten jarraituko du sindikatuak.

- ✓ **ELA klase sindikatua da:** langile klase guztia ordezkatzen dugu, sektore eta kolektibo guztietakoak. Ez dugu lan munduko sektore bakoitza modu isolatuan ulertzen. Interes indibidualen prebalentziak (horrela ulertzen ditugu sindikatu korporatiboak) langile klasea ahultzen du eta interes kolektiboak alboratzen ditu. Kapitalismo berak sustatzen duen indibidualismoaren prismatik sortutako erakundeak dira. Tamalez sektore publikoan asko ematen den sindikalismo mota da.

- ✓ **ELAk hezkuntza sistema bakarra, publikoa, burujabea, euskalduna eta anitza nahi du**: egungo sare banaketa gaindituko duena, burujabea dena Espainia eta Frantziaren eredu uniformatzailetik zein kapitalaren eta enpresen nahi pribatuengandik, Euskal Herria erreferentzi-marko gisa duena, eta bizikidetzarako balioen transmisioa egingo duena (hezkidetza, naturarekiko errespetua, herrikideekiko errespetua...) baina ere berean ikasleei ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna emango diena.

- ✓ **Langileekiko hurbiltasuna oinarria da ELAn**: Hego Euskal Herriko 43 herritan ditugu bulegoak eta, Hezkuntzaren kasuan, eskualde bakoitzean liberatu-talde bat gaude, eskualde horretako ikastetxeekin eta afiliatuekin harreman zuzena dugunak.

- ✓ **Sindikatuaren babesa ematen diogu afiliatuei**:
  - Egunerokotasuneko gaiei buruzko zalantzak argitu, erreklamazioekin lagundu etab.
  - Zerbitzu juridikoak eskuragarri dituzte: aholkularitza, gorako helegiteak, etab.
  - **Erresistentzia Kutxa:** ELAren borrokek duten eraginkortasuna azaltzen duen gakoa da. Gizartean oso ezaguna da elkartasun tresna hau. Afiliatu bakoitzak ordaintzen dugun kuotaren laurden bat kutxara doa. Diru hori greban dauden langileengana bideratzen da, langileek borrokan jarraitu ahal dezaten akordio on bat sinatu arte.

Jarraitu ELA Hezkuntzaren sareak!

ELA IRAKASLEAK EAE

ELA Hezkuntza EAE

ELA Hezkuntza

ELA Hezkuntza